

opusdei.org

Garbi dago Jaungoikoa apaizen bila dabilela gaur ere gazteen artean

Diego Zalbidea diakonoa
maiatzean apaiza izateko
prestatzen ari da

2005 Urt 13

**Konta iezaguzu nola izan den zure
ibilbidea apaiz izatea erabaki arte**

Nire lehenengo heziketa San
Patriziori, Getxoko Karmengo
Agustindarrei, Areetako

hautzaindegi bati eta, batez ere,
Leioako Gaztelueta Ikastetxeari zor
diet eta, neurri batean, nire bokazioa
ere bai. Batxilergoa bukatu nuenean
Deustuko Unibertsitatean Zuzenbide
Ekonomikoko ikasketak burutu
nituen.

Erromako oroitzapen asko izango dituzu

Erromara Teologia ikastera abiatu
nintzen arte, Bilbon bizi izan naiz.
Unibertsitateko irakasle batek bera
ere Erroman izana zela aitortu zidan,
eta urte gogoangarriak izan zirela
berarentzat. Motz gelditu ziren nire
ametsak. Izan ere, 2000ko Jubileua
Erroman bertan bizitzeko aukera
izan nuen eta ez dut nire bizitzan
ahaztuko.

Harrigarria da Aita Santua bertatik
ikustea, egunero, eta hainbat
pertsonek – gazte jendeak, batez ere
– Aitortzaren bitartez Kristo
berraurkitzea nahi izatea. Ordura

arte ikusi gabea nintzen aitortzeko
horren ilara luzeak. 2000ko
abuztuaren Nazioarteko
Gazteentzako Eguna urte horretako
gailurretako bat izan zen. Nire ustez,
Aita Santuarentzat zerutik jaitsiriko
oparia izan zen. Gazteei begira
jarrita eta Joan Paulo II. arekin bat
nola egiten duten ikusita,
itxaropenez betetzeko dela uste dut:
beren garaikideek eman ezin
dezaketen zerbaiten egarri dira; Aita
Santuarengan, beren estuasun eta
beldurren erantzuna aurkitzen dute.
Erromako Aitak etorkizunari aurre
egiteko baikortasuna ematen die.
Teologiako lehen zikloa Erroman
bukatutakoan Iruñera itzuli nintzen,
Nafarroako Unibertsitatean
Zuzenbide Kanonikoko espezialitatea
ikastera. Orain nire doktoretzako
tesian lan egiten ari naiz, Ondare-
Zuzenbide Kanonikoari buruz.

Zertan datza diakono izatea?

2004ko azaroan diakonotza hartu dut, Javier Echevarria Opus Deiren Prelatuaren eskuetatik. Maiatzaren 21ean, Jaungoikoa lagun, apaiztua izango naiz Erroman. Nire apaiztea bere apaiztearen 50 urteurrenarekin egokitzea zori handia da niretzat.

Egun horretarako prestatu bitartean eta diakono bezala nire lehen urratsak ematen ditudan bitartean, Jaungoikoak aurrerantzean niretzako prestatua daukana hausnartzean berotu egiten naiz. Eguberrian, Meza Santuan parte hartu ezin zuten Klinika Unibertsitarioko gaixoei Jauna eman ahal izan diet. Jaunaren Gorputza debozio handiz hartzen ikusi dut eta niretzat lagungarri izan da, Eukaristiarekin eguneroko harremanerako. Diakono batek egin dezakeen beste elizkizun bat Guztiz Donearekin Bedeinkapena da. Eukaristiaren Urtea dela eta, elizkizun hau egiteko gomendioa

eman digu Aita Santuak. Jauna esku artean edukitzea, eskerrik asko emateko arrazoia da niretzat.

Nire belarrietan itzaltzen ez den oihartzuna da San Josemariak zioena: Opus Dein apaizgora iristen direnak, bere anai-arreben eta arima guztien zerbitzuan jartzeko dela eta horretarako bihotza lurrean jarri beharra daukatela besteek bigun zapaltzeko. Nire ministerioaren betebeharrengatik, alde batera utzi behar izan ditut nire gogoak eta horrek areagotu egin du nire poza, Jaungoikoarengandik harturiko deiarengatik. Mundu guztiari gertatzen zaion gauza da: horrela aitortu izan didate nire adiskideek beren familiak osatu eta seme-alabak etortzen direnean. Batzuetan nork bere burua gehixeago ematea eskatzen badu ere, ordainetan eskuratzen diren pozak edozein neke arintzen dute.

Zein izan da familia eta adiskideen eragina?

Ondo gogoan daukat Derion zegoen Bilboko seminarioa. Gaztetandik harritzen nintzen han prestatu diren apaiz ugari direla eta, geroztik mundu zabalean Ebanjelioaren poza banatzen ari direnak. Azkeneko urteetan nire zenbait adiskide apaiztu egin dira. Nire ustez, garbi dago Jaungoikoa apaizen bila dabilela gaur ere, gazteen artean, eta askok guztia utzi eta berari jarraitzea erabakitzen dute. Familiaren jokabideak eragin handia izan dezake goi-deiaren mesederako. Nik neurean ikusi dudanez. Nire etxean izan da fedea helarazi zaidan lekua. Nire familia osoaren poza ikusi dut, apaiztu egin behar nuela jakin zutenean, eta nire ustez, edozein ama kristauarentzat pozgarria da bere seme bat Jaungoikoak deitua izatea. Ez da beldur izan behar, Aita Santuak esan du, gazteei bere burua

osorik ematea planteatzeko,
Jaungoikoak deitzen jarraitzen baitu
eta hain gauza handirako aukeratzen
dituenei bere grazia ematen dielako.

Boluntario moduan ere ibilia zara, Negubide gazte elkartean

Eta asko ikasi dut laguntzako elkarte
batzuekin egindako lanean ere. Urte
mordoska jardun dut boluntario
bezala, beste pertsona batzuekin;
beraiei esker bizitza hobe ulertzen
ikasi dut, askotan uste duguna baino
ezkutuago gertatzen zaiguna.

Besteak eta beren beharrak gure
aurretik jartzeaz ari naiz. Hainbeste
urteen ondoren, egiaztatu ahal izan
dut jarduera hauetan lehen aldiz
parte hartzera berotu nindutenek
errepikatzen zidatena: ematen
duzuna baino askoz ere gehiago
hartzten duzu beti. Hala ere, laguntza
lanetan ezagutu nituen pertsona
gehienak oso zoriontsuak ziren,
haien egoera edozein zela ere.

Pena ematen dit gaur egungo gazte asko noraezean ikusita, zoriontasunaren bila, aurkituko ez duten lekuetan. Azalean zoriontsu, baina jakin gabe Jaungoikoak maite dituela, Kristo zain daukatela eta Elizak aintzakotzat hartzen dituela mundua zorionez betetzeko. Beharbada ez dute izan hau guztia era egokian nork irakatsirik edo agian aditu bai, baina entzungor egin zuten. Nire ustez, beharrizan mota honek inoiz baino gehiago eskatzen du kristauen ekinaldia. Ezin dut ahaztuta utzi Negubide, Getxoko familia elkarte bat: oso oroipen onak dauzkat gogoan eta adiskide minak mantentzen ditut. Han gauza asko ikasi nituen - estudiatzen, lagunekin gozatzen eta oso ondo pasatzen – eta kristau heziketa sendoa hartu ere bai, beste guztia errazago egiten zuena.

Parrokiak bere eragina izan du, dudarik gabe, ezta?

Bai, nire sinesmenaren hazieran leku garrantzitsua izan du nire parrokiak. Mesedeetako Andre Mariaren eliza nire etxetik bost minutura dago eta horrexegatik bere kanpandorrea nire haurtzaroarekin eta gaztaroarekin lotzen dut. Han eta beste elizetan (Madres Reparadoras direlakoak, Karmena, San Inazio, Trinitatearrak edo Santa Ana) Eukaristiara joaten nintzenean, ikusia dut apaiza asko bere bizitza emanaz herriaren sinesmenak sendo iraun zezan, gora zihoan sekularizazioaren aurrean. Nire haurtzaroko oroipen garbienetako bat hantxe kokatzen da. Nire aitarekin Gurutz Bidean parte hartzera joan nintzen. Ez zegoen jende asko eta arnasten zen giroa atseгина zen. Apaizaren ondotik jarraitu nuen egonaldiz egonaldi. Inoiz ahaztu ez ditudan Nekaldiaren antzezpenak dira, eta une hartan jota utzi nindutenak.

Nabaria da bihotzean daukazula zure jaioterria

Opus Dein onarpena uztailaren 31 batean eskatu nuen, Getxoko patroia den San Inazio jai batean, hain zuzen. Oroipen ederrak gordetzen ditut eta nire betebeharrak uzten didatenean Bilbora joaten naiz. Txikitan, sarritan, nire aitarekin arrantzura joaten nintzen Areetako kaian geneukan ontzi txiki batean. Une ahaztezinak pasa ditut Abran, txitxarroak edo lupiaren bat harrapatzen, edo, besterik gabe, bakarrik tramonto romanorekin alderatu daitezkeen eguzki-sarrerak gozatzen. 1996an nire aita zendu zenean, Begoñako Andra Mariaren basilikara abiatu nintzen, nire ama eta anai-arrebekin. Han, Amatxoren eskuetan ipini nituen niretarren ardura eta nire bokazio bera. Harrezkero Bilbotik igarotzen naizenean, Amarengana joan-etorria egiten saiatzen naiz eskaera hura

gogorarazteko eta dagoeneko egin
duen guztiarengatik eskerrak
emateko.

Bilbotik alde egin nuenetik – sei urte
bete dira ia – ez diot utzi bakearen
alde errezatzeari. Nengoen
lekuetatik albisteak jarraitzen saiatu
naiz, gure herriko jendeak bake hori
lortzeko duen gogo berberaz.

*Maiatzean, Diegorekin batera beste
lagunak apaiztuko dira Erroman:
Eduardo Diez-Caballero gasteiztarra,
Iñaki Izco eta Jose Fernandez Castiella
iruindarrak, eta Jorge Llop bilbotarra,
besteak beste.*